

LA COMISION NACIONAL DE MERCADOS Y LA COMPETENCIA DICTA RESOLUCION SANCIONADORA CONTRA 9 COLEGIOS DE LA ABOGACIA por los informes no vinculantes sobre tasaciones de costas.

Estimado/a compañero/a:

EN FECHA DE 8 DE MARZO DE 2018 La Sala de Competencia del Consejo de la Comisión Nacional de los Mercados y la Competencia (CNMC), ha dictado la siguiente resolución sancionadora en el expediente S/DC/0587/16 COSTAS BANKIA, incoado por la Dirección de Competencia contra los Colegios de Valencia, Barcelona, Ávila, La Rioja, Bizkaia, Santa Cruz de Tenerife, Albacete, A Coruña y Sevilla por supuestas prácticas restrictivas de la competencia prohibidas en el artículo 1 de la Ley 15/2007, de 3 de julio, de Defensa de la Competencia (LDC). ([Resolución sancionadora](#))

El 3 de Diciembre de 2015 Bankia interpuso una denuncia contra todos los Colegios de la Abogacía de España, sin ninguna distinción, porque entendía que, en los innumerables pleitos en los que resultaba condenada a pagar las costas procesales, los Colegios tenían que aplicar una reducción de costas en beneficio de Bankia, en atención a que muchos de esos pleitos se iniciaban con demandas estandarizadas, de copia y pega, y eso debería significar que el trabajo de los abogados de los demandantes no revestía especial complejidad.

De un total de 83 Colegios, la **CNMC ha dirigido el expediente sancionador únicamente contra 9 Colegios**, entre ellos el nuestro. Ello no se debe a las pruebas practicadas durante el procedimiento, sino que desde el principio y de forma arbitraria la CNMC decidió abrir expediente sólo a estos 9. En ningún momento, ni durante la tramitación del procedimiento, ni en la resolución final, ha explicado la CNMC las razones por las que ha elegido a éstos y ha descartado a los demás.

Igualmente, la CNMC se ha separado desde el comienzo de las razones recogidas en la denuncia de Bankia, y ha utilizado la misma como mera excusa para abrir una causa general contra los 9 Colegios, por la supuesta aplicación de criterios de honorarios prohibidos.

A lo largo de todo el expediente sancionador, nuestro Colegio ha explicado y justificado que, para la elaboración de dichos informes orientativos y no vinculantes, aplica los criterios establecidos en la jurisprudencia del Tribunal Supremo, y que son los Juzgados y Tribunales los que fijan las cantidades, después de oír las razones de cada una de las partes, tomando los informes colegiales como mera orientación.

En concreto, **en el expediente sancionador de la CNMC, únicamente constan dos informes de tasación de costas del ICABizkaia. En uno de ellos se daba la razón a Bankia en la necesidad de reducir los honorarios por la defensa letrada, y en el otro se consideraba que la minuta era correcta.** La CNMC no ha incorporado

a la instrucción las tasaciones finales establecidas por los Juzgados en ninguno de estos dos casos.

Finalizada la instrucción del expediente sancionador, la Dirección de Competencia de la CNMC dictó una **Propuesta de Resolución en julio de 2017 en la que proponía el ARCHIVO DEL EXPEDIENTE, por entender que no existía ninguna infracción, dado que las Leyes habilitan a los Colegios a establecer criterios orientativos para las tasaciones de costas**, criterio con el que coincidían 6 Autoridades Autonómicas de Competencia.

La Autoridad Vasca de la Competencia, sin embargo, emitió informe aconsejando la sanción por infracción muy grave, con la abstención de la que entonces todavía era su Presidenta, D^a María Pilar Canedo Arrillaga, por haber sido propuesta como vocal del Consejo de la CNMC.

En enero de 2018, el Consejo de la CNMC decidió desoír la Propuesta de Resolución de Archivo y dictar un Acuerdo de Recalificación por infracción muy grave. Finalmente, el 9 de marzo de 2018 nos ha notificado la resolución sancionadora, imponiendo a nuestro Colegio una sanción de 125.000€.

La Resolución además incluye un voto particular concurrente de D^a María Pilar Canedo Arrillaga, (antigua Presidenta de la Autoridad Vasca de la Competencia) en la que defiende la imposición de una sanción mayor.

LA JUNTA DEL COLEGIO considera la sanción arbitraria e injusta por lo que INTERPONDRÁ DE FORMA INMEDIATA CONTRA LA MISMA RECURSO CONTENCIOSO-ADMINISTRATIVO ANTE LA AUDIENCIA NACIONAL, del cual os mantendremos debidamente informados.

Agradeciendo tu interés recibe un cordial saludo.

CARLOS FUENTENEbro
DECANO

MERKATUEN ETA LEHIAREN BATZORDE NAZIONALAK ZEHAPEN-EBAZPENA EMAN DU ABOKATUTZAREN 9 ELKARGOREN KONTRA kostuen tasazioari buruzko txosten ez-lotesleengatik.

Lankide estimatua:

2018KO MARTXOAREN 8AN, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalaren Kontseiluko Lehiaren Salak zehapen-ebazpena eman du S/DC/0587/16 COSTAS BANKIA espedientean. Hain zuzen ere, espedientea Lehiaren Zuzendaritzak abiatu zuen Valentzia, Bartzelona, Ávila, Errioxa, Bizkaia, Santa Cruz de Tenerife, Albacete, Coruña eta Sevillako elkargoen kontra, lehia murrizten duten ustezko eginerengatik, debekatuta baitaude Lehia Babesteko uztailaren 3ko 15/2007 Legearen 1. Artikulua dela bide. [\(Zehapen-ebazpena\)](#)

2015eko abenduaren 3an, Bankiak salaketa jarri zuen Espainiako Abokatuen Elkargo guztien kontra, haren ustez, prozesuko kostuak ordaintzera kondenatzen zuten auzi ugaritan elkargoek kostuen murrizketa aplikatu behar baitzuten Bankiaren mesederako; izan ere, auzi horietako asko eta asko demanda estandarizatuekin abiatzen ziren, kopiatu eta itsatsi eginda, eta horrek esan nahi zuen demanda-jartzaileen abokatuen lanak ez zuela konplexutasun handirik.

83 elkargoetatik, **zehapen-espedientea 9 elkargoren aurka soilik zuzendu da**, besteak beste, gure elkargoaren aurka. Hori ez dago oinarrituta prozeduran zehar egin diren frogetan, hasiera-hasieratik eta nahierara, espedientea 9 horien aurka soilik irekitzea erabaki baitzen. Inola ere, ez prozedura izapidetzean ez azken ebazpenean, Kontseiluak ez du azaldu zergatik hautatu dituen elkargo horiek eta ez gainerakoak.

Era berean, Kontseilua hasiera-hasieratik urrundu da Bankiaren salaketara bildutako arrazoietatik, eta salaketa hori aitzakia huts moduan erabili du 9 elkargoen aurka auzi orokorra abian jartzeko, debekatuta dauden ordainsarien irizpideak ustez aplikatzeagatik.

Zehapen-espediente osoan, gure elkargoak azaldu eta justifikatu du, txosten orientatzaile eta ez-lotesle horiek egiteko Auzitegi Gorenaren jurisprudentzian ezarritako irizpideak aplikatzen dituela, eta auzitegiek eta epaitegiak finkatzen dituztela kopuruak, alderdietako bakoitzaren arrazoiak entzun ondoren, elkargoaren txostenak orientazio huts moduan hartuta.

Zehatz esanda, **Kontseiluaren zehapen-espedientean Bizkaiko Abokatuen Elkargoaren kostuen tasaziorako bi txosten baino ez daude. Horietako batean, Bankiari arrazoiak ematen zitzaion, eta abokatu defendatzailearen ordainsariak gutxitu egin behar zirela esaten zen; beste txostenean esaten zen minuta zuzena zela.** Kontseiluak ez ditu auzialdira gehitu bi kasu horietan epaitegiek ezarritako azken tasazioak.

Zehapen-espedientearen instrukzioa amaitu ondoren, Kontseiluko Lehiaren Zuzendaritzak **ebazpen-proposamena eman zuen 2017ko uztailean; horren arabera,**

ESPEDIENTEA ARTXIBATZEA proposatzen zen, arau-hausterik ez zegoela ulertzen zelako; izan ere, legeek elkargoak gaitzen dituzte kostuen tasaziorako irizpide orientatzaileak ezartzeko. Irizpide horrekin bat zetozen Lehiaren 6 agintaritzaren autonomiko.

Hala ere, Lehiaren Euskal Agintaritzak emandako txostenean, arau-hauste oso larria zela eta zehapena ezartzeko gomendatzen zuen, eta orduan lehendakari zen Maria Pilar Canedo Arrillaga abstenitu egin zen, Kontseiluko kide izateko proposamena egin baitzioten.

2018ko urtarrilean, Kontseiluak artxibatzearen ebazpen-proposamenari muzin egin eta arau-hauste oso larriaren ziozko akordioa hartu zuen. Azkenean, 2018ko martxoaren 9an, zehapen-ebazpena jakinarazi digute, eta gure elkargoari 125.000 €-ko zehapena ezarri diote.

Horrez gain, ebazpenean Maria Pilar Canedo Arrillaga Lehiaren Euskal Agintzako lehendakari ohiaren boto partikularra jaso da, eta horren arabera, zehapen handiagoa ezarri beharko litzateke.

ELKARGOKO BATZAREN ustez, zehapena arbitrarioa eta bidegabea da, eta hori dela eta, ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI-ERREKURTSOA JARRIKO DU BEREHALA AUZITEGI NAZIONALEAN. Aldian-aldian emango dizuegu horren berri.

Zure interesa eskertuz, har ezazu nire agur zintzoa.

CARLOS FUENTENEbro
DEKANOA